

Omendua Azterketak Euskaraz

23. KORRIKAn, Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu nahi dugu, edo, zehazki, Baxoa eta Brebeta¹ euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak.

Euskara da haien aldarria, KORRIKAre bezalaxe; beren ikasketen une erabakigarri batean, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egiten dute, Frantziako Gobernuaren aginduen gainetik eta beren notetan ondorioztatu kalteak onarturik.

Azterketak Euskaraz kolektiboa gazteek osatua da, guraso zein irakasleak bidelagun dituztelarik gatazkan. Euskararen ekintzaile dira; haiek dira protagonista, eta, haien bidez, 35 urtean hainbat belaunaldiren lana aitortzeko aukera dugu.

Aitortza hau haien egoera ezagutzera emateko bozgorailua izan daiteke: Euskal Herri osoan, eta hemendik kanpo ere, jakin dezatela gazte horiek egun ezin dutela ikasketen zati garrantzitsu hori gure hizkuntzan burutu. Gainerako gazteentzat ere eredu garri izan daiteke ikustea egoera okerrenetan ere hainbat ikasle ahalegina egiten dutela euskara hautatzeko.

¹ **Baxoa:** Frantziako Estatuan goi-mailako ikasketak egin ahal izateko ezinbestean eskuratu behar den titulua.

Brebeta: Frantziako Gobernuak 14-15 urteko ikasleei euren kolegioko eskolaratzea gainditu dutela ziurtatzeko ematen dien diploma.

Mezua

Harro herri, euskaraz jakin zein ez, har dezagun dimentsio orotan eragiteko konpromisoa, herria batuta. Harrotasunez! Konplexuak gainetik kendu, mugi dezagun euskararen herria, ingurua mugiarazi arte.

*Harro hadi Kantauri itsasoa,
Arabako mahats, Bardeako buztin.
Harro zite Pirinioetako elur, Meatzaldeko burdina.
Elkarrekin nahi ditugu pausoak egin,
espazio berriak irabazi eta, hitzez zein ekintzez,
aldarri egin.*

*Gauden harro garenaz, eta egiten dugunaz.
Bete ditzagun etxe eta kaleak euskaraz.
Harro plazan, online zein kanpoko bizitzan.
Harro herri, eta harro KORRIKAn!*

23. korrika

HARRO
HERRI

Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Zer da KORRIKA?

KORRIKA Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko ekimen erraldoia da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta AEKren eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen KORRIKA antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Ordudunik, 22 KORRIKA eta 43 urte igaro dira. 2024ko martxoaren 14an hasita, 11 egun eta 10 gauetz, KORRIKAK Euskal Herria zeharkatuko du 23. aldiz. Bi mila eta bostehun kilometro euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka partaiderekin, gau eta egun gelditu gabe.

KORRIKA hasi eta amaitu arte, lekukoa eskuz esku eta kilometroz kilometro eramaten dute korrikalariak; lekuko horren barruan, KORRIKA helmugara iristean irakurriko den mezua gordetzen da, ordura arte sekretupean gordetzen dena.

Ehunka mila lagunek hartu dute parte aurreko KORRIKA edizioetan. Ekimenaren inguruan sortzen den mugimenduak Euskal Herriko jendarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egindako hautua erakusten du.



KORRIKA bi urterik behin Euskal Herriko jendartea astintzen duen gertakari bilakatu da, oso ekimen babestua eta maitatua, zalantzarik gabe. Bertan parte hartzen duen jende-kopuruak gora egiten du etengabe, KORRIKAREN antolaketan milaka lagun aritzen dira herriz herri eta auzoz auzo eratutako batzordeetan, eta kanpainak irauten duen bitartean, hil batzuk lehenago aurkezten denetik azken eguneko jaia egin arte, ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatu ohi dira.

Maitasun eta babes horiek itzuli nahi dizkiogu jendarteari, inguruari, KORRIKA arduratsuago bat sustatuta: feminismotik eraiki, gizarte erantzukizunetik aniztasuna aldarrikatu, aztarna ekologikoari erreparatu, eta abar.

Nola hartu parte?

Antolaketan arituz

- Zure herrian edo auzoan eratuko den KORRIKA batzordean parte hartuz.

Diruz lagunduz

- Korrika Laguntzailea izanez eta 23. KORRIKako materiala erosiz.
- Korrikalarien peto edo bizkarrekoa erosiz, aurretiaz, AEKren edozein euskaltegitan zein KORRIKA dendetan, edo KORRIKA igarotzen den egunean bertan.
- Herriz herri egingo den KORRIKAREN aldeko diru-bilketan lagunduz.
- KORRIKAREN izenean hurrengo kontu korranteetan nahi den ekarpean eginez:
 - Hegoaldean (ES70 3035 0072 02 0720037810)
 - Iparraldean, eurotan (FR76 1333 5000 4008 9291 5827 532) eta euskotan (218371601)
- BIZUM bidez ekarpena eginez, "korrika" edo "aek" bilatuta.
- Lekukoa familiarekin, elkartekideekin, lagunekin... eramanez eta ekarpena eginez.

KORRIKAREN berri emanez eta haren ospea hedatuz

- KORRIKAREN webgunea bisitatuz (www.KORRIKA.eus) eta KORRIKAREN aldeko sare sozialetan parte hartuz.
- Korrika Kulturalak antolatuko dituen ekitaldietan parte hartuz.

KORRIKAN bertan parte hartuz

- 23. KORRIKAREN hasieran eta amaieran parte hartuz: zatoz Irunera martxoaren 14an, eta Baionarat martxoaren 24an!
- Bizkarrekoa jantzita korrika eginez; euskara ikasi, hitz egin eta euskaraz bizi nahi dugula erakusteko.

Enpresa eta saltegiek

- KORRIKA iragartzeko euskarriak babestuz.
- Korrikalaria eskuratuz zein Korrika lagun izanez.
- Kilometroak eskuratuz. Parte hartzeko modu hau erabili nahi dutenek KORRIKAREN bulegoetara jo dezakete.

Zer da AEK?

AEK-k antolatzen du KORRIKA. AEK erakundeak euskararen normalizazioan dihardu, eta euskararen normalizaziorako eremu guztietan aritzen da: ezagutzan, erabileran eta sustapenean. AEKren xedea da Euskal Herriko biztanle guztiak euskaraz eroso bizitzea.

Gaur egun, berriki abian jarri duen epealdi estrategikoan, AEK-k ikuspegi hau du ezarria: "EH osoan, AEK erreferente izango da euskal hiztun aktiboak sortzen, doako zerbitzua izan dadin eragiten".

Bestalde, AEK ikuspegi feminista txertatzeko bidea urratzen ari da erakundeak, aukera-berdintasunean urrats sistematikoak eginez. Egun, abian da AEKren II. Berdintasun Plana.

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan; barnetegiak ere bai, baita online-ikastaroak ere



aizu! **æk korrika**

praktikatu
mintzapraktika egitasmoak

euskaratu
itzulpenitzua zuzenketa zerbitzua

ahize **æk**
hizkuntza aholkularitza

Aurreko KORRIKA amaitu zenetik, euskararen alde lanean segitu duen komunitatearen gogo nabarmendu nahi dugu, euskararekin harro dagoen herri bat badagoelako: euskaltegietan dabilzan ikasle eta irakasleak, enpresetan eta mota guztietako erakundeetan aritzen den jendea euskara eguneroko hizkuntza bizia izan dadin, euskara praktikatzeke eta euskaraz ikasi eta bizitzeko ahalegina egiten dutenak, euskarazko hedabideak sustatzen dituztenak, euskarazko kultura sortzen dutenak, euskararen aldeko hautua egiten duten herritar eta eragileak, eta abar.

Bi urte hauetan, gainera, 2.000 urteko esku bat ezagutu dugu, zeinak harro eta gogotsu jarri gaituen etorkizunari begira. Testuinguru honetan, aurreko KORRIKAREN indar-erakustaldia oraindik ere oso iltzatuta begiradan, AEK-k aldarri alai eta tinko bat proposatu nahi du KORRIKA honetarako: gure herria euskaraz harro dagoelako, zabaldu egin nahi dugu euskararen aldeko mugimendua; mugi dezagun euskararen herria, ingurua mugiarazi arte. Bestalde, sasoi honetan ezin dugu ahaztu euskaldunon eskubideen aurka bizirik segitzen duen oldarraldia. Horrez gain, segitzen dugu ikusten administrazioetatik ez dela bideratzen euskarari lotutako aski baliabiderik. Erraterako, kezka larri hori islatzeko bete ziren, ez aspaldi, Baionako karrikak.

Hala, ezinbestekoa da Euskal Herri osoan euskararen normalizazio nahitaezkoa bizkortzea eta inbertsioak areagotzea. Hori dela eta, 23. KORRIKAK jasoko duen dirua Euskal Herri osoan euskararen normalizazioaren aldeko bere lana aurrera eramanez ahal izateko baliatuko du AEK-k.